

KAFE USAINA

Jon Cadierno Gutierrez, 16 urte

Zumarraga

Baliteke hain gozoa egiten zitzaion usainak une batez pena guztiak alde batera uztea, baina iritsi zen agurtzeko momentua. Euria ari zuen tabernan zegoen bitartean, noizbehinka aterkia irekita zerman pertsona bat leiho ondotik igarotzen zelarik. Zeru grisak paisaia guztia goibeldu zuen, herri osoa txuri-beltzean ageri zen bere begien aurrean. Tabernako mahairik baztertuena aukeratu zuen kafea edateko eta bere pentsamenduetan murgiltzeko. Leihotik begiratzean hotzikarak sentitu zituen, eguzkiak taberna pareko elizaren leihoak noiz argituko zituen imajinatuz. Bere ingurura begiratu zuen une batez, eta tabernan zeuden pertsona guztiak itxura berbera zuten, izan ere, eguraldiak portaeran arrastoa uzten du.

Bere eskuinaldean zegoen gizona kopetilun zebilen. Eskuen artean egunkaria zuen, baina gizonaren begirada tabernako puntu konkreturen batean finkatuta zegoen. Pertsona horrek edaten ari zuen kafe usaina ez zen batere gozoa, azukrerik gabekoa alegia. Bi mahai aurrerago hogeita-hamar

bat urteko emakume bat zegoen. Nahiko dotore jantzita zegoen, baina malkoak isuri zituen behin eta berriz. Emakumeak mahai gainean zuen kafea ez zen berea bezain ona. Azukrerik gabe zegoela ziurtatu zuenean emakumearengana hurbildu eta honen sorbalda gainetik, esnerik eta azukrerik gabeko kafea zuela ikusi zuen; izan ere, portaerak kafean arrastoa uzten du. Ordurako, bere egoera ez zen neska harena baino hobea, hala ere, bere kafea askoz gozoagoa zegoen, noski, azukre eta esne pittin batekin. Katilua eta berokia hartu eta emakumearen ondoan eseri zen. Bien kafeak oso ezberdinak ziren. Oso aurpegi polita zuen Aishak. Duela bost urte etorri zen Marokotik, eta herrian finkatu zen etxe zahar batean. Unibertsitateko hirugarren mailan zebilen neskatxa arabiarren lagun egin zenean, eta geroztik zenbait malko isuri zituen bere besoen artean. Aishak familia osoa miseria gorrian utzi zuen bizitza berri bat hasteko, baina oroimen beltzak zituen eta berak lagundu zion poliki-poliki mundu berrian sartzen. Egunero parkean egoten ziren iturriaren ondoan, eta egunero familia kontuak ateratzen zituen. Bost urte geroago eskatzen zituen kafeak gero eta gozoagoak ziren, baina oraindik ere nahiko mingotsak. Orduan, inoiz baino gehiago desiratu zuen zeru beltzean bere inguruko kafeak aberastuko zituen argi-izpi bat azaltzea, azukre poltsak katiluetan guttiz hustutzeko momentuaren zain. Aisharen begi berdeak begiratu zituen une batez, eta esan beharrekoa esan baino lehen kafe pittin bat edan zuen.

Irentsi baino lehen ahoan eduki zuen hain zapore ikaragarria dastatzeko. Begiak itxi zituen beste lurralde bat bisitatzeko, non euriak ez zuen kafean arrastorik uzten, ez eta jende askoren bihotzean ere. Aire beroa sentitu zuen bere aurpegian, eta segituan irribarre egin zuen. Bere aurrean laku eder bat zegoen, non koloreek paisaia guztia hartuta zuten. Lakuaren erdian irla txiki bat zegoen. Bere imaginazioa bultzatuz lur zati txikira iritsi zen eta Aisha ikusi zuen, errealitatean baino alaiago. Begi berdeek diztira egiten zuten eskuetatik helduta bi haur zeramatzalarik. Aisharen anaiak ziren seguruenik, beraien arreba handiaren antza baitzuten. Horietako bat berarengana hurbildu zen eta esku batean muxu eman zion.

– Hobe izango duzu Aisha bakarrik uztea begiak irekitzean.

Bat-batean begiak ireki zituen pixkatxo bat izututa. Aishak tristeturik jarraitzen zuen, bere pentsamenduetan murgilduta bezala. Berak kafearekin bukatu zuen eta zerbitzariari begira egon zen segundu batzuez. Une horretan katiluak eta plartertxoak garbitzen ari zituen, baina bere ustez beti katilu berdinari ari zen xaboia ematen. Lehen bere ondoan zegoen gizonak bezalaxe eta Aisharen antzera, zerbitzariak nonbaiten galdua zuen begirada, agian bere buruan irudikatutako laku berdinean. Hala ere, gizonaren ondora hurbildu zen honen begirada galdua aurkitzeko. Bere begien parean kalea txuri-beltzean ageri zen. Bazirudien hiriko kaleetan amaigabeko hiletak ospatzen zire-

la, eta tabernako leihoetatik begiratzean argi eta garbi antzematen zen nola beltzez jantzitako jendea eguzkiaren heriotzagatik negar egiten zuen. Erotuta bezala taberna pareko elizari begira geratu zen, beltzez jantzita hiletara joateko gogoarekin. Oraingoan ez zuen kafe usainik nabaritu, edo agian bai, baina oso mingotsa. Orduan konturatu zen bere alboan zegoen zerbitzaria ere elizari begira zegoela. “Goazen”. Gizonarekin batera tabernatik irten eta elizako parkeko eserleku batean eseri ziren euria gogor ari zuelarik. Eraikineko leihoak aztertu zituen nahiz eta bere begien aurrean den-dena txuri-beltzean ageri.

Bien parean beste gizon bat zegoen blai eginda. Itxura ezatsegina zuen eta atzerritarra zirudien. Bere alboan txakur argal bat zegoen. Une horretan, gizonak bibolin bat atera zuen zuloz betetako motxila zahar batetik. Bibolinaren gizonari begira gelditu zitzaion bera, nahiko harrituta. Atzerritarrak irribarre egin zuen zerura begiratzea eta bibolina jotzen hasi zen. Harrigarria iruditu zitzaion nola bibolin batetik hain musika zoragarri eta gozoa atera litekeen. Begiak itxi zituen euri tantak sudur gainean erortzen zitzaizkion bitartean. Oraingoan ez zen lakuan agertu, itsaslabar baten ertzean baizik. Bibolin hotsa entzuten jarraitzen zuen heinean, eguzkia itsasotik ateratzen hasi zen poliki-poliki bere gorputza berotuz. Haize leun batek bere ilea mugiarazi zuen, eta baita Aisharena ere. Bere laguna itsasora begira egon zen denbora luzez eta bat-batean, txoritxo bat balitz bezala,

itsaslabarretik behera salto egin zuen eta itsasazpitik eskerrak eman zizkion. Orduan, berriz ere norbaitek ezkerreko eskuan muxu eman zion. Behera begiratzean begi berdeko neska txiki bat zegoen, Aisharen ahizpa txikia zirudiena. Soineko arrosa bat zeraman eta baita panpin bat ere esku artean.

– Aishari asko gustatuko zaio begiak irekitzean ikusiko duzuna– esan zuen neskatilak ahopeka.

Une horretan oso ezaguna egin zitzaion usaina nabaritu zuen bere eserlekutik gertu. Begiak ireki zituen eta guztiz txundituta geratu zen ikusitakoarekin. Tabernako zerbitzaria zutik zegoen elizdorrera begira, eta liluratuta zegoela zirudien. Zerura begiratzean urdina soilik agertu zen, erbateko zeru oskarbia zegoen mamu-hiria bizitzara bueltatzeko asmoz. Ordurako hileta amaitua zegoen, non udazkeneko koloreek musikariaren aurpegia lehen baino gehiago argitu zuten. Agian lo geratu zela pentsatu zuen, bat-bateko eguzkiak ez baitziren planetako zonalde hartan agertzen. Zerbitzariaren ondora abiatu zen bibolin hotsa entzunez. Honek irribarre egin zion eta musikariari begiratzeko keinua egin zion. Orduan berak ere irribarre egin zuen bibolin jolearen ondoan kafe gozo.gozoaz betetako katilu txiki bat ikustean, eta poztu egin zen hain gizon zoriontsua ikustean. Txakurrak elizdorrera zaunka egin zuenean, bere orpoak mugitu eta pare-parean zuen errosetoiera begiratu zuen. Momentu horretan ikusitakoa bere bitzta osoan gogoratu zuen, hain irudipen magikoa bihotzean gorde baitzuen Aishataz egunero

oroitzeko. Errosetoia osatzen zuten kristaletan oso laku ederra ageri zen, erdian irla txiki bat zuena. Den-dena ehundaka kolorez apaindurik zegoen, eta irla txikian hiru irudi ikusi zituen: andere bat bi aingerurekin.

– Irudi ederra benetan- esan zuen Aishak bere ondoan-, eskerrak ematen dizkizut egin duzun guztiagatik. Badakit lan berri bat duzula herrialdearen beste aldean eta ez zaitut inoiz ahaztuko. Zin egingen dizut nire kafeak ez direla mingotsak izango, dagoeneko udaberria iritsi zaigu eta. Neguko hotza bueltatzean azukre gehiago botako dut- esan zuen irribarre eginez- eta noski, esne pittin batekin.

– Astero bidaliko dizkizut gutunak, Aisha maitea. Zure anai-arrebak ezagutu ditut eta jakin ezazu asko lagundu didatela.

– Ez. Zuk ez dituzu nire anai-arrebak ezagutu. Zure barnean sortutako hitzak izango ziren, eta horrexegatik eskerrak ematen dizkizut.

Aisha parkean utzirik bidai luze bat egiteko presatu zen, baina lehenago bibolin jolearen txakurra laztandu zuen eguzkiak argitzen zituen elizako kristaletara begira.